

BIODIBERTSITATEA

Lezoko eskoletan

LEZOKO ESKOLAKO AGENDA 21

Lezoko eskolako
Agenda 21

2011-2012



ongizate iraunkorra



Lezoko Unibertsitateko Udala



Eskolako Agenda
Agenda Escolar



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad



ERIKURRIKULUMEN
PLANEATZAILEAN
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANEACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

ZAIN DEZANGUN GURE NATURA ONDAREA

Lezoko Herri Eskola eta Lezo Institutuak laugarrenez Eskolako Agenda 21 hezkuntza programa garatu dugu: ia 700 bat ikasle! Aurtten, Pasaia Lezo Lizeoak ere antolatu diren zenbait ekimenetan parte hartu du. Eskolako Agenda 21en helburua eskola komunitatea osatzen dugun eragileok (ikasleak, gurasoak, irakasleak eta eskolako gainerako langileak) garapen iraunkorraren alde lan egiteko heztea eta sentsibilizatzea da.

IKASTURTE HONETAN BIODIBERTSITATEA IZAN DUGU AZTERGAI ETA KULTURANIZTASUNAREN KONTZEPTUAREKIN ERE UZTARTU DUGU. HORRETARAKO, HAMAIKA JARDUERA ERAMAN DUGU AURRERA ETA HORREN GUZTIAREN BERRI ZUEI EMATEKO, EKIMEN NAGUSIAK LABURBILDU DITUGU.

A lo largo del curso 2011/2012, los centros escolares de Lezo hemos tratado el tema de la BIODIVERSIDAD dentro del programa educativo de la Agenda 21 Escolar. Este ha sido el cuarto año en el que participamos en la Agenda 21 Escolar, siendo alrededor de 700 l@s alumn@s implicad@s, junto con el profesorado, los padres y las madres, y el resto de trabajadores y trabajadoras de los 2 centros escolares de Lezo.





Zer Egin Dugu Ikasturtean Zehar?

luz hartutako konpromisoak berrikusi ditugu, lanean jarraitzeko

Biodibertsitatearekin lotura duten bideoak ikusi, ipuinak eta gaiari lotutako berriak irakurri, hitzaldiak antolatu eta bideojokoak erabili ditugu sentsibilizatu eta ikasteko

Eskola zentroaren nahiz hurbileneko ingurunearen bioaniztasun maila aztertu dugu, horretarako prestatutako fitxak erabiliz, eta lortutako ondorioak eskolako diagnostia egiteko baliatu ditugu

Herriko natura-ondarea ezagutzeko asmoz, Lezoko eremu ezberdinetara irteerak antolatu ditugu (Jaizkibel mendira, Altamirako parkera, herriko lorategi eta bestelako berdeguneetara, ...)

Herritarrek biodibertsitatearen inguruan duten ezagutza maila aztertu eta Lezoko natura-ondarearekin zerikusia duten alderdi ezberdinei buruzko iritzia jakiteko, inkesta ezberdinak egin ditugu (familiei, herritarrei kalean, ...)

Antolatutako irteera ezberdinetatik eta inkestetatik eratorritako ondorio nahiz emaitzak abiapuntutzat hartuz, Lezoko bioaniztasunaren diagnostia osatu dugu

Eskolako Txoko Berdea apaindu dugu natur ondarearen inguruko informazioarekin

Maiatzean Eskolarteko Foroa antolatu dugu, ikasturtean zehar egindako lana gogora ekartzeko eta eskolek biodibertsitatearen gaiari hartu ditugun konpromisoak zein Udalari zuzendutako eskaerak ezagutarazteko

Ikasturtean zehar egindako lana aintzat hartuz, eskola zentroetako bioaniztasunari buruzko ekintza planak prestatu ditugu

Durante el curso escolar hemos llevado a cabo las siguientes tareas: sensibilización en materia de biodiversidad; análisis de la situación de centro (el patio, las aulas, el comedor,...); encuestas a las familias así como a los y las lezoarras; organizar el "Espacio Verde" del centro; visitas temáticas a espacios de interés naturalístico; diagnóstico de biodiversidad del municipio; Foro Interescolar,...



Nolakoa izanda parte- hartzea?

Ikasturte honetan, Eskolako Agenda 21 programan eskola komunitatearen parte-hartzea honakoa izanda:

- Ikasleen eta irakasleen parte-hartze maila ona izanda
- Irakasleak ez diren langileek jarrera egokia izan dute
- Udalaren inplikazioa ona izan dela irudituz. Gurasoena aldiz, hobetzeko beharra dago

En la Agenda 21 Escolar hemos valorado la participación de este año y hemos concluido que la participación del alumnado, el profesorado y el Ayuntamiento ha sido buena, la de los trabajadores y trabajadoras del centro adecuada, y aunque la implicación de nuestras familias ha sido aceptable, se puede mejorar.

ZER IKASI DUGU?

IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKO LANKETAREN ONDORIOZ ZERA IKASI DUGU:

Gure inguruan animalia mota ezberdin ugari ditugu, eta horrela izaten jarrai dezan, animaliak eta euren bizitokiak zaintzea beharrezkoa da

Animaliak erabiltzen dituzten zirkuetan animaliak berezkoa ez duten izaera agertzen dute, sarritan tratu txarrek behartuta. Naturan aske ikustea askoz aberasgarriagoa da

Biodibertsitatea zer den ezagutu eta bertako parte garena ulertu dugu

Zuhaitz eta landare mota ezberdinak ezagutu ditugu, herriko txoko ezberdinetara egin ditugun irteeratan. Ikasitakoaz baliatuz, Herri Es-

kolako jolastokiko zuhaitzei bere izena agertzen duten txartelak jarri dizkiegu

Zenbait landare eta animalia, oso politak edo erakargarriak izanda ere, bertako biodibertsitatean kalte larriak sortu ditzakete: espezie inbaditzaileak dira.

Lezoko Udalak bioaniztasunaren alde Altamirako parkean eta Jaizkibelan egindako ekimenak ezagutu eta euren garrantzia ulertu dugu: landare inbaditzaileak kentzea, bertako espezieen landaketa, urmahel artifizial baten eraikitzea, ...

Gizakiok gainerako espezieekiko dugun jarrera aldatu ezean, munduko 6.

suntsipen masiboa sortzearen erantzule izango gara




Gure gizartearen aniztasuna ere aztertu dugu eta jatorri anitzekoak garena jabetu gara. Animalia eta landareenganako izan behar dugun errespetuaren pare, gure arteko elkarbizitzarako ere ezinbestekoa dela ikusi dugu

Maskotak dendetan erosteak arazo ugari sortzen ditu; bai animaliei baita guri ere. Askoz hobetoagoa da txakurtegi edo babes-etxe batean adoptatzea

Daukagun ondare biologikoa babes-teko eta errespetatzeko, lehendabizi ezagutzea ezinbestekoa da


GRACIAS AL TRABAJO QUE HEMOS REALIZADO DURANTE EL CURSO, HEMOS APRENDIDO LO SIGUIENTE:

- Debemos respetar a los animales y las plantas, así como su hábitat.
- Primaremos la adopción frente a la compra de mascotas
- Para valorar y salvaguardar la biodiversidad, previamente debemos conocerla
- Debemos el mismo respeto a personas con otra cultura y procedencia
- Hemos conocido la importancia que para la biodiversidad tienen las actuaciones desarrolladas por el Ayuntamiento. Si no actuamos pronto, seremos responsables de la 6ª extinción masiva en el planeta...



Herriko diagnosiaren

ONDORIOAK





HERRI MAILAN AZTERKETA
ETA GALDEKETA EZBERDINAK
EGIN DITUGU ETA HORIEN
EMAITZAK IKUSITA ONDO-
RIO BATZUK ATERA DITUGU.

Lezoko biztanle gehienek badakite zer den biodibertsitatea

Lezon animalia eta landare asko daudela uste du herritarren gehiengoak, nahiz eta ia beste horrenbeste diren kontrakoa pentsatzen dutenak

Animalia eta landareak errespetatzeko behararen alde agertu da herritarren gehiengo zabala

Animaliak gustuko dituzte Lezon. Halere, gehiengoak animalia mota guztiak gustuko baditu ere, badira soilik mota batzuk atsegin dituztenak ere

Asko dira maskota etxean dutenak (nagusiki txakurra edo katua), baina hau erositakoa edo opari bezala jaso dute. Gutxi dira maskota kaletik edo babes-etxe batean hartu dutenak

Floridako dortoka maskota bezala dute zenbait etxeetan, nahiz eta hauen erdiek ez dakiten zein jatorri duen. Dortokarekin jarraitu nahiko ez balute, dendara itzuliko luketela aipatu dute gehienek

Kalean gehien aurkitzen diren animaliak (gizakia kanpo utziz)

txakurrak dira, ondoren katuak eta amaitzeko txoriak

Herritarren erdiaren ustean parke eta lorategi gehiago beharko lituzke herriak eta biztanleen erdiak ere uste du daudenak ondo zainduta daudela

Lezoar gehienek etxetik hurbil loreak, zuhaixkak eta zuhaitzak dituzte, gehienbat bertako landarediarekin. Dena den, espezie inbaditzaileak ere badaude tartean nahastuta

Inguruko natura-gune babestuak ezagunak dituzte Lezon. Aipatue-nak Aiako Harria, Jaizkibel, Txingudiko padurak eta Artikutza izan dira

Espezie mehatxatu bat zer den badakite herritarrek, baina erdiak baino gutxiago eman ahal izan du bertako mehatxatutako espezie baten adibiderik

Espezie inbaditzaile bat zer den ere badakite, eta kasu honetan, erdiak baino gehiagok eman du inbaditzailea den animalia edo landare baten izena

Jatorriari erreparatuz gero, gurasoen %17a eta aitona-amonen %33a Euskal Herrikoa ez dela esan genezake (estatuko beste lurraldeetakoa eta baita Hegoamerika edo Afrikakoa ere)

Gaur egun, 2 seme-alaba izatea da ohikoena. Gurasoen garaian, aldiz,

2-4 bitartean, eta aitona-amonen kasuan, berriz, 2-8 izaten zituzten

Ikasleek euskara eta gaztelaniaz gain, frantsesa edo/eta ingele-sa irakurri eta hitz egiten jakitea arrunta da. Guraso edo aitona-amonen kasuan, hizkuntzen ulermen maila baxuagoa izan arren, hizkuntza aniztasuna handiagoa da.

Tras analizar las diferentes encuestas realizadas a la población, podemos concluir que:

La mayor parte de la ciudadanía conoce qué es la biodiversidad.

El respeto hacia animales y plantas es importante para la gran mayoría.

Son muchos quienes tienen una mascota en casa (perros y gatos sobre todo), aunque pocos quienes las han adoptado o recogido en la calle.

La mayor parte de los lezoarras cree que hacen falta más parques y jardines, pero considera que los existentes están bien cuidados.

La ciudadanía sabe qué es una especie amenazada, aunque menos de la mitad conoce algún ejemplo de especie autóctona en peligro de extinción.

El 17% de los padres y madres, así como el 33% de los abuelos y abuelas, provienen de fuera de Euskal Herria.

En tres generaciones el número de hij@s ha disminuido de manera notable....

Gure Konpromisoak

IKASTURTEAN ZEHAR
BIOANIZTASUNAREN
GAIA LANDU ONDOREN,
LEZOKO ESKOLAKO
AGENDA 21 PROGRAMAN
PARTE HARTZEN DUGUN
ESKOLEK ONDORENGO
KONPROMISOAK HARTUKO
DITUGU:

Eskolan eta etxean, gure ardurapean ditugun landareak eta animaliak modu egokian zainduko ditugu

Kultura eta hizkuntza aniztasuna, biodibertsitatearen parte bezala ulertzen dugu, eta horrenbestez, kontserbatu beharreko ondaretzat hartuko dugu

Animalia zein landare exotikoak erostea saihestuko dugu, inbaditzaile bihurtu eta gure ekosistemetan kalteak eragin baititzakete

Jatorri ezberdineko pertsonak errespetuz tratatuko ditugu eta gure gizartean integrazten lagunduko diegu, euren kultura-ezaugarriak mantentzeko aukera emanez

Animaliak maskota bezala hartu aurretik, bitan pentsatuko dugu, bizi diren artean geure ardurapean egon beharko baitute

Animalien kontrako tratu txarren berri badugu, hau ekiditen saiatuko gara, eta arazoak jarraitzen badu, udalari jakinaraziko diogu esku hartu dezan

Eskola komunitatea osatzen dugunon artean bioaniztasunaren inguruko sentsibilizazioa bulztatuko dugu





Ahal dugun neurrian, bai eskolan, bai etxean, bertako landare espezieak landatuko ditugu

Maskotak erosi ordez, kalean jaso edo animalien babes etxe batera joko dugu

Datozen urteetan, gure atzetik datozeinei, bioaniztasunaren inguruan aurten ikasitakoa ezagutarazi eta hartutako konpromisoak jakinaraziko dizkiegu

Eskolan, besteengan ikusten ditugun jarrera desegokiak zuzentzen saiatuko gara: patruila berdea martxan jarriz eta abar

Gure etxeokak eta lagunak bioaniztasunaren kontserbazio eta hobekuntzan murgiltzen saiatuko gara

Udalari bioaniztasunaren inguruko informazio eta kontzientziazio kanpainak zabaltzen lagunduko diogu, eta, ahal dugun neurrian, burutzen dituen ekimenetan parte hartuko dugu




Principales compromisos de los centros escolares

- Cuidaremos de nuestros animales y plantas en casa y en la escuela.
- Trataremos de preservar la diversidad lingüística y cultural.
- Evitaremos la compra de animales y plantas exóticas.
- Respetaremos y ayudaremos en la integración de personas de diferente procedencia.
- Nos lo pensaremos dos veces antes de adquirir una mascota, evitando la compra.
- Evitaremos los malos tratos hacia los animales.
- Promoveremos la sensibilización en torno a la biodiversidad.
- En la medida de lo posible, plantaremos plantas autóctonas.
- Compartiremos lo aprendido en este curso con l@s nuevo@s alumn@s.
- Corregiremos nuestros malos hábitos y trataremos mejorar los de l@s que nos rodean, animando a la conservación y la mejora de la biodiversidad.
- Colaboraremos y participaremos en las campañas promovidas por el Ayuntamiento.

ZER ESKATU DIOGU UDALARI?

BIOANIZTASUNA
MANTENDU ETA
HOBETZEKO,
ZENBAIT BEHAR
DAUDELA
IRUDITZEN ZAIGU
ETA HORRELA
JAKINARAZI DIOGU
LEZOKO UDALARI
MAIATZAREN 30EAN
IZANDAKO FOROAN





SOLICITUDES AL AYUNTAMIENTO

Continuación de acciones de conservación y mejora de la biodiversidad por parte del Ayuntamiento.

Mejorar el cuidado de parques y jardines.

Oposición a la construcción de grandes infraestructuras que hagan peligrar la biodiversidad del municipio.

Realizar campañas para evitar la propagación y erradicar las especies exóticas.

Elaboración de campañas contra el abandono de mascotas.

Definir y desarrollar corredores ecológicos.

Poner en valor nuestra biodiversidad y mantener informada a la ciudadanía.

Evitar espectáculos que sometan a los animales a malos tratos.

Fomentar las iniciativas de promoción de la diversidad cultural.

Apoyar en la creación de la huerta escolar en la Herri Eskola.

Elaboración de una ordenanza de tenencia y protección animal.

Bioaniztasunaren kontserbaziorako Udalak jarraitu diezaiola aurten ezagutu ditugun ekimenen bitartez hasitako bideari

Herriko parke eta lorategien zaintza hobetzea

Gure herriko bioaniztasuna arriskuan jar dezaketen azpiegituren kontrako jarrera agertu eta hauen eraikuntza ekiditeko jarduerak burutzea, hala nola: Kanpo-kaiaren edo Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoa Landare inbaditzaileak ezabatzeko kanpainak bultzatzea

Animalia eta landare exotikoen zabalkundearen aurkako sentsibilizazio kanpainak burutzea

Maskoten abandonuaren kontrako sentsibilizazioa bultzatzea eta abandonatutako animaliak topatuz gero, jarraitu beharreko protokoloa diseinatzea

Gure eskualdeko bioaniztasuna hobetzeko baliagarri diren korridore ekologikoak definitu eta garatzea

Herriko bioaniztasuna balioan jarri eta, aldiro-aldiro, herritarren artean informazioa zabaltzea

Animaliekiko tratu txarrak eragiten dituzten ikuskizunak saihestea

Herriko kultura-aniztasuna balioan jartzeko ekimenak bultzatzea

Herri-eskolan Eskola-Baratza proiektua abian jartzen laguntzea, ikasleok eta eskola komunitateak bertako espezieak ezagutzeaz gain, bertako produktuen kontsumoan murgiltzeko

Animalien edukitze eta babeserako udal-ordenantza bat osatzea